



UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTA.

2014ko martxoaren 26ko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziaren zuzendari Juan Andrés Legarreta jauna, Paz Frances andrea, Estibaliz Amorrortu andrea, Eneritz Garro andrea, Félix Pérez jauna, Néstor Torres jauna, Aintzane Asumendi andrea eta Alfonso Hernández jauna.

Ezin etorria adierazi dutenak: Perla Cohen andrea, Jörn Grunewald jauna eta Jean-Michel Uhaldeborde jauna.

Unibasq-en aldetik José Manuel Valle (zuzendari-laguntzailea) eta Eva Fdz. de Labastida (ebaluazio-arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda

- 1.- 2014ko urtarrilaren 23ko aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Zuzendariaren txostena.
- 3.- ENQA elkartean txertatzeko prozesua.
- 4.- Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordearen proposamenak.
- 5.- III. Sinposioa: gaiak eta batzorde antolatzailea.
- 6.- Audit programaren ezarpena ziurtatzeko dokumentazioa berrikusi eta onartzea.
- 7.- Galde-eskeak.

1.- 2014ko urtarrilaren 23ko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

Akta aho batez onartu da, akats ortografiko eta huts batzuk aipatu eta zuzendu dira, eta onartutako behin betiko dokumentuak batzordekideei bidaltzeko eskatu da.

2.- Zuzendariaren txostena.

Zuzendariaren txostenean bildutako honako gai hauek azaldu dira, labur-labur:

- Egiaztapena berritzea: deialdi pilotua.
- Irakasle eta Ikertzaileen egiaztapena.
- Euskalitekin hitzarmen bat sinatuko dela jakinarazi da.

- Beste aholkulari akademiko bat sartzeko eta, era horretan, jakintza-esparru bakoitzeko 2 kide izateko eta ebaluatzaile izan nahi duten izangaien ebaluazioa errazteko aukerari buruzko iritzia eskatu zaio Aholkularitza Batzordeari.

3.- ENQA elkartean txertatzeko prozesua.

Jakinarazi denez, ENQA elkartearen aditu taldearen kanpoko bisitaldiaren behin-behineko txostena jaso zen atzo arratsaldean.

Halaber, elkarrizketen laburpena egin da.

4. Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordearen proposamenak.

Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordearen Ikasleen Batzordeak bidali zuen dokumentua aurkeztu da, eta, zehazki, ikasleak Unibasq-eko ebaluazio-batzordeetako kide gisa hautatzeko Agentziak berak hautagaitza bakoitzeko ikasleen hiru curriculum vitae bidaltzea proposatzen da dokumentu horretan (Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleenak). Gainera, ikasle batek ikasketak amaitu ondorengo urtean ebaluatzaile izaten jarraitzeko aukera izateko eskatzen da.

Lehen proposamena onartu egin da, baina bigarrenaren kasuan, eskaera horrek lege-euskarririk ez duen susmoa agertu da, eta, horregatik, ebaluatzaile izatea ahalbidetzen duen izaera galtzen denez gero legez ezinezkoa dela helaraziko zaio Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeari.

5. III. Sinposioa: gaiak eta antolaketa-batzordea.

Batzordeari jakinarazi zaionez, Gobernu Batzordeak 2014an sinposio bat egitea onartu du.

Unibertsitateen nazioartekotzearen gaiari buruz izatea erabakitzen da. Eztabaida sortzen da ekarpen ugariekin.

Antolaketa Batzordearen, Paz Francés ikaslea barnean hartzea erabakitzen da.

6. Audit programaren ezarpena ziurtatzeko dokumentazioa berrikusi eta onartzea.

Programaren faseen berrikuspen historiko txiki bat egin da egungo egoera testuinguruan kokatzeko, eta joan den urteko deialdi pilotuaren ondoren egindako aldaketa/egokitzeak adierazi dira. Dokumentazioa onartu egin da, ziurtagiriaren eta eranskinen idazkuntza/itzulpena hobetzeko proposamen batzuekin.

7. Galde-eskeak

Zuzendariak 2013ko Memoriaren zirriborroa berrikusteko eta lortutako emaitzei buruzko gogoetan laguntzeko eskatu dio Batzordeari.

Hurrengo bilkura 2014ko ekainaren 10erako programatu da.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilera amaitutzat eman da 14:00etan.